



EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA / SUBVENCIÓN PARA EL APRENDIZAJE DEL EUSKERA

AZALPENA:

Ikasturtean zehar (irailetik abuztura biak barne), herrian edo kanpoan, euskara ikasteko ematen diren diru laguntzak.

HELBURUA:

Eusko Legebiltzarrak azaroaren 24ko 10/1982 "Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko Legea", onartu zuen.

Hirugarren artikuluan esaten duen bezala: Euskara eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan.

Bostgarren artikuluko lehen parrafoan, dio: "Euskal Herriko herritar guztiak dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz".

Legeak berak herri-agintariei ematen dien agindua kontutan izanik, Mendaroko udalak, medio propiorik ez duenez, EUSKARA IKASTEKO diru laguntzak eman nahi ditu, helburu hau bete dadin.

EPEAK

Deialdia urterokoa izango da eta diru laguntza eskatzeko epea, irailaren 1etik 15era bitartekoa.

DIRULAGUNTZA

Matrikula **kostuaren %80a arte** ordainduko da. Partidaren kopurua gaindituz gero diru laguntza eskarien artean banatua izango da. Ikasturteko gehienez ere 300 euroko laguntza emango da.

Laguntzatik kanpo gelditzen dira garraio eta ostatu gastuak.

Diru laguntzen ordainketak, zuriketak aurkezteko epea bukatu ondoren bideratuko dira.

BETEBEHARRAK

- Mendaron erroldatuta egotea gutxienez urte betean eskaera egin aurretik eta udalarekin betebeharrak egunean izatea.
- Gutxienez eskolen %80ko asistentzia edo ikasturtean gutxienez HABE-ren maila edo azpimaila bat gainditzea.
- Egin beharreko ebaluazio-probak egitea.
- Matrikula dagozkion epeetan ordaintzea.

BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

1. Eskaera-orria behar bezala beteta.
2. Euskaltegiak, ikastaroa amaitutakoan, egindako ziurtagiria. Ziurtagiri honek jaso behar du ikaslearen asistentzia-portzentajea eta ikaslearen ikastaro hasierako eta bukaerako maila.
3. Ikastaroaren ordainagiria.

CONCEPTO:

Subvenciones para aprender euskara, durante el **curso (de septiembre a agosto ambos inclusive)**, en el propio municipio o fuera de él.

OBJETIVO

El Parlamento Vasco aprobó la ley 10/1982 del 24 de noviembre, "Ley Básica para la Normalización del Uso del Euskera".

En el tercer artículo de dicha ley: el euskera y el español son idiomas oficiales en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En el primer párrafo del artículo cinco, dice: "Todos los ciudadanos de Euskadi tienen derecho a conocer y usar los idiomas oficiales, tanto oralmente como por escrito".

Teniendo en cuenta la encomienda que la propia ley hace a las autoridades públicas, el Ayuntamiento de Mendaró por no tener medios propios, ofrece subvenciones PARA EL APRENDIZAJE DEL EUSKERA, con el fin de cumplir este objetivo.

PLAZOS

La convocatoria será anual y el plazo para presentar solicitudes, desde el 1 hasta el 15 de septiembre.

AYUDAS

Se abonará **hasta el 80% del coste** de la matrícula. En caso de superar el importe de la partida la ayuda será concurrente. La ayuda máxima por curso será de 300 €

No serán objeto de ayuda los gastos de transporte, alojamiento o manutención.

Las subvenciones se abonarán tras finalizar el plazo para presentar los justificantes.

REQUISITOS

- Estar empadronado en Mendaró, mínimo un año antes de la solicitud y estar al corriente de las obligaciones con el Ayuntamiento.
- Acreditar una asistencia mínima del 80% o haber superado durante el curso por lo menos un nivel o subnivel de HABE.
- Realizar las pruebas de evaluación correspondientes.
- Pagar la matrícula en los plazos acordados.

DOCUMENTACION NECESARIA:

1. Instancia debidamente cumplimentada
2. Certificado del Euskaltegi que acredite la asistencia del alumno. Dicho certificado deberá mencionar el porcentaje de asistencia del alumno así como el nivel del alumno tanto al inicio como al finalizar el curso.
3. El justificante de pago del curso.

udala



ayuntamiento

DOKUMENTAZIOA LORTZEKO ERA

Eskera-orriak udaletxeko Erregistroan edo www.mendaro.eus web orrian.

COMO OBTENER LA DOCUMENTACION:

Las solicitudes se podrán recoger en el Registro del Ayuntamiento o en la pagina web www.mendaro.eus

Kontaktua:

Bulegoa, astelehenetik ostiralera, 9:00-13:00etara
Tf: 943-033282

Contacto:

Oficina de lunes a viernes, de 9:00 a 13,00 h.
Teléfono: 943- 033282

ALKATEAK



Udal etxea
Ayuntamiento